

Frantzisko Aita Santuaren mezua 2025eko Garizumarako

Gabiltzan elkarrekin itxaropenean

Anai-arreba maiteok:

Errautsen penitentzia ezaugarria buruan genuela ekin genion garizuma santuaren urteroko erromesaldiari, fedean eta esperantzan. Ama eta irakasle dugun Elizak, gure bihotzak prestatzera eta Jainkoaren graziari irekitzera gonbidatzen gaitu, Kristo Jaunak, bekatuaren eta heriotzaren gainean lortu duen garaipena alaitasun handiz ospatu ahal izateko, San Paulok aldarrikatzen zuen bezala: «Behin betiko garaitua gertatu da heriotza. Non duk, herio, heure garaipena? Non heure eztena? » (*1 Ko 15, 54-55*). Izan ere, Jesu Kristo hila eta berpiztua da gure fedearen erdigunea eta Aitaren promesa handian dugun itxaropenaren bermatzailea: bere Seme maitearengan, jadanik gertarazi zuen, betiko biziaren promesa (ik. *Jn 10, 28; 17, 3*)¹.

Jubileu Urtearen graziaz aberastutako garizuma honetan, *elkarrekin itxaropenean ibiltzeak* eta Jainkoaren errukiak denoi, modu pertsonal nahiz elkartekoan, zuzentzen digun bihotz-berritzeko deiak deskubritzeak suposatzen duenaren inguruko gogoeta batzuk eskaini nahi dizkizuet.

Ezer baino lehen, *ibiltzea*. Jubileuaren leloak, “Itxaropenean erromes”, Israelgo herriak agindutako lurrerantz egindako bidaia luzea ekartzen du gogora, Hasiera liburuan kontatua; bere herria maite duen eta leialtasunez begiratzen duen Jainkoak nahi izandako eta gidatutako bide zaila, esklabotzatik askatasunerako bidea. Ezin dugu Bibliako exodoa gogoratu, gaur egun miseria eta indarkeria egoeretatik ihes egiten duten hainbeste anai-arrebengan pentsatu gabe, beraienez eta beren senide maiteentzat bizitza hobea bilatuz. Bihotz-berritzerako lehen deia sortzen da hemen, bizitzan denok garelako erromes. Bakoitzak bere buruari galde diezaioke: nola utziko dut baldintza horrek eragin nazan? Benetan bidean nago ala apur bat geldiarazia, estatiko, beldurrez eta itxaropen faltaz; edo pozik nire konfort gunean? Bekatu egoeretatik eta duintasun faltatik askatzeko bideak bilatzen ditut? Garizumako ariketa ederra litzateke etorkin edo erromesen baten errealitate zehatzari aurre egitea, eragin gaitzan utziz, Jainkoak eskatzen diguna deskubritzeko, Aitaren etxerako ibiltari hobeak izateko. Hau “azterketa” ona da oinezkoarentzat.

Bigarrenik, egin dezagun bidaia hau *elkarrekin*. Elizaren bokazioa elkarrekin ibiltzea da, sinodo-erakoak izatea². Kristauok elkarrekin bidea egitera deituak daude, inoiz ez bidaiari bakarti gisa. Espiritu Santuak bultzatzen gaitu geure baitatik irtetera Jainkoarengana eta anai-arrebengana joateko, eta inoiz ez geure baitan giltzapetzera³. Elkarrekin ibiltzeak esan nahi du batasun-artisauak izatea, Jainkoaren seme-alaben duintasun komunetik abiatuta (ik. *Ga 3,26-28*); besoz beso ibiltzea esan nahi du, bestea zapaldu edo menderatu gabe, inbidiarik edo hipokresiarik izan gabe, inori atzean geratzen edo baztertuta sentitzen utzi gabe. Norabide berean goaz, helmuga bererantz, elkarri maitasunez eta pazientziaz entzunez.

Garizuma honetan, Jaungoikoak eskatzen digu gure bizitzan, gure familietan, lan egiten dugun lekuetan, parrokiako elkarte edota erlijioso elkarteetan, besteekin ibiltzeko, entzuteko, geure buru-erreferentzialtasunean itxitzeko tentaldia garaitzeko, geure beharrez bakarrik arduratuz.

¹ Ik. *Dilexit nos* Gutun-entziklika (2024ko urriaren 24), 220.

² *Juan Bautista Scalabrini eta Artemides Zatti dohatsuen kanonizazio-mezako homilia* (2022ko urriaren 9)

³ Ik. *ibid.*

Galde diezaiogun geure buruari Jaunaren aurrean, ea gai garen elkarrekin lan egiteko gotzain, presbitero, sagaratu eta laiko gisa, Jainkoaren Erreinuaren zerbitzura; ea harrera-jarrera dugun, keinu zehatzekin, gugana hurbiltzen diren pertsonetikiko eta urrun daudenetikiko; ea jendea elkartearen parte sentiarazten dugun edo baztertzen dugun⁴. Bigarren dei bat da hau: sinido-erara bihotz berritzea.

Hirugarrenik, egin dezagun bide hau elkarrekin promesa baten *itxaropenean*. *Itxaropenak ez du huts egiten* (ik. *Erm* 5, 5), Jubileuaren mezu nagusia⁵, izan bedi guretzat Pazko garaipenerako garizumako bidearen zerumuga. Benedikto XVI.a aita santuak *Spe salvi* Entziklikan erakutsi zigun bezala, «gizakiak inongo baldintzapean ez den maitasuna behar du. Hau esatera daraman ziurtasuna behar du: “Badakit ziur, ez herio eta ez bizi, ez aingeru eta ez goiko beste indar, ez oraingo eta ez geroko, ez inolako botere, ez ortziko eta ez lur azpiko indar, ez inolako beste izakik, ez gaituela alduko Jainkoak Jesu Kristo gure Jaunarengan agertu digun maitasunetik” (*Erm* 8, 38-39)»⁶. Jesus, gure maitasuna eta itxaropena, berpiztu egin da⁷, eta errege aintzatsu bizi da. Heriotza garaipen bihurtua izan da eta horretan datza kristauen fedea eta itxaropena, Kristoren piztueran.

Hauxe da, beraz, bihotz-berritzerako hirugarren deia: itxaropenarena, Jainkoarekiko eta bere promesa handiarekiko, betiko bizirako, konfiantzarena. Geure buruari galdetu behar diogu: Jainkoak nire bekatuak barkatzen dituelako uste osoa daukat, ala bakarrik salba baninteke bezala portatzen naiz? Salbamena irrikatzen dut eta Jainkoaren laguntza eskatzen dut hura hartzeko? Konkretuki bizi al dut historiako gertaerak irakurtzen laguntzen didan itxaropena eta justiziaren, senidetasunaren eta guztion etxearen zaintzaren aldeko konpromisora bultzatzen nauena, inor atzean gera ez dadin jardunez?

Anai-arrebok, Jainkoak Jesu Kristorengan duen maitasunari esker, huts egiten ez duen itxaropenak babesten gaitu (ik. *Erm* 5, 5). Itxaropena “arimaren aingura” da, segurua eta sendoa⁸. Bertan, Elizak otoitz egiten du «denak salba daitezen» (*1 Tm* 2,4), eta egun batez Kristo bere senarrarekin, elkartuta zeruko aintzan egotea espero du. Honela zioen Santa Teresa Jesusenak: «Zain egon, zain egon, ez baitakizue ez egunik, ez ordurik. Itzarririk egon, laster batean igarotzen baita guztia, zure desirak ziurra dena zalantzako, eta aldi laburra aldi luze bihurtzen badu ere» (*Arimaren bihotz-oihuak Jainkoari*, 15, 3)⁹.

Ama Birjinak, Itxaropenaren Amak, gure alde egin dezala eta garizumako bidean lagun diezagula.

*Erroman, Lateranoko San Joanen, 2025eko otsailaren 6an,
San Pablo Miki eta haren lagunen, martirien, oroipenean.*

Franciscus

⁴ Ik. *ibid.*

⁵ Ik. *Spes non confudit* Bulda, 1.

⁶ *Spe salvi* Gutun-entziklika (2007ko azaroaren 30), 26.

⁷ Ik. Pazko igandeko Neurtitza.

⁸ Ik. *Eliza katolikoaren Kristau Ikasbidea*, 1820.

⁹ *Ibid.*, 1821.